



Antxiñako fotografixia



Santa Mariñako iturririxia eta beste

Zenbat jolas eta bolante ez ete dogu egin Santa Mariñako iturri horretan? Hemen agerketan diran neskaitilla-mutikuak letxe. Plaza eder honi antxiña bertan eguen ermitta batek emun otzan izena. Historixiak dixuenez, kale aldeko auzorik zaharrenetakua ei dogu, nahiz eta orain dakon itxuria XVIII. eta XIX. mendetan hartu. Plazia inguraketa dauein etxe eta jauregi dotoriak denpora horreittan jaso edo berriztau ziran:

Baruekua, Antixena, Madinabeitiarena eta Moiuarena. Aittatutako eraikuntza honeik plaziaren hiru alderdi ixten zittuain; laugarren alderdixan, barriz, Santa Mariñari eskiñittako ermittia zan, 1864. urtian eskolak egitteko bota zan arte.

Eskolok, hasieran euki ebein egitturiarekin, ehun bat urtian iraun ebein: orain dala 30en bat urte zihero barriztau ziran, teillatu aldeko errematia manteniduaz, baiña bi pisu gehixago jaso-

ten xatela. Argazkixa atarata daguein garaixan, 1960 alde-ra, Herri-Eskoletako mutikuak ebalten ebein etxe horren alde bata, eta Udal Musika-bandiak bestia; ensaiotarako zan alderdi horri **Txarangia** be esaten xakon. Barriztutako edifiziuaz **Milagrosa** Ikastetxia dago iragoko urtietan. Plaza erdiko iturririxia 1880an ipiñi zan, Oñatiko beste plaza eta txoko askotan lez, eta **Casto Zabala** Bizkaiko Diputaziñoako arkitektuak diseñau eta

Pariseko *Durenne Sommevoire* etxiak fundidutakua dogu. Hartziko aska borobilla buelta guztian dakoilla, hiru birtudiak agiri dira -- fedia, esperantzia eta karidadia-- kurtziaren inguruan. A! baten batek ezaguketan ditte neskaitilla-mutikuok?

J.E.

Argazkixa **Joxe Fernandezek** itxittakua da.

DISEÑUA

tarjetak
logotipoak
iragarkiak
liburuxkak
fotomuntaiak
kartelak
maketazioa
eta abar

ROBERTO MAIZTEGI Tel. 78 26 41 - 78 14 89



Jose Ramon
Kortabarria "Sarramendi"
ERREKADISTA

**Paketeak,
dokumentuak,
tramiteak eta abar.
ONATITIK-DONOSTIARA
eta tarteko HERRIAK**

Errekalde, 2-1. Esk.
Tfnoa: 78 15 72
Altuna estankoa:
Kale Barria, 19.
Tfnoa: 78 00 03